

**GOBELAURRE**  
**boluntariotza-zentroa**

**LOKALAREN ERABILERA LAGATZEKO  
DEIALDIA. 2024-2025**

## 1. artikulua: XEDEA.

Deialdi honen xedea Chavarri Zuazo z/g plazako Gobelaurre eraikinean dauden lokalen aldi baterako egoitzen eta aldi baterako jardueretarako guneen erabilera eta erabilera esleitzea da.

Gune horren helburua Getxoko Udalarekin lankidetzan aritzen den elkarte-sarearen parte-hartzea sustatzea, indartzea eta bultzatzea da. Erakundeek bilerak, koordinazioak, jardunaldiak, ikastaroak, hitzaldiak eta abar egiteko erabiliko dituzte.

Gizarte Kohesioko Arloak bere jardueretarako espazioak erabiliko ditu, eta beste udal-arlo batzuei ere baimendu ahal izango die erabilera puntuala, jardueraren izaera eta erabilgarritasuna kontuan hartuta.

## 2. artikulua: ERAKUNDE HARTZAILEAK ETA BETEKIZUNAK.

Getxoko hirugarren sektoreko erakundeak, udal-eskumenen esparruan lan egiten dutenak.

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira kultura- eta kirol-erakundeak, alderdi politikoak, sindikatuak eta enpresa-erakundeak.

Erakundeek baldintza hauek bete beharko dituzte eskaera egitean eta lokalak erabiltzen diren bitartean.

- Legez eratuta egotea.
- Nortasun juridiko propioa izatea.
- Irabazi-asmorik ez izatea.
- Getxoko Udaleko eta/edo Eusko Jaurlaritzako elkarten/fundazioen erregistroan behar bezala inskribatuta egotea.
- Egunean izatea Getxoko Udalarekiko betebeharrak (diru-laguntzak, zorrak eta zergak itzultzeagatiko ordainketa-betebeharrak), BFArekikoak (zerga-zorrak eta Gizarte Segurantzarekikoak (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko ordainketak egunean egotea).
- Helburu sozialak lortzea, berdintasuneko, justizia sozialeko eta giza eskubideen erabateko errespetuko irizpideetatik abiatuta.
- Egitura irekiak eta parte-hartzaileak izatea, beren lana gardentasunaren eta parte-hartze demokratikoaren irizpideetan oinarrituta egingo dutenak, eta elkartekideen eta/edo boluntarioen koordinazioa, erantzunkidetasuna eta protagonismoa sustatuko dutenak.

Getxoko Udaleko Gizarte Kohesio Arloak egiaztatu ahal izango du zerga-betebeharrak egunean dituela (Getxoko Udala eta BFA), Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko ordainketak egiten dituela eta dirulaguntzak itzultzen dituela, interesdunak horren aurka egiten ez badu behintzat. Aurka egiteko eskubidea baliatzen denean, baldintza horiek egiaztatze behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko da.

Getxoko Udalak egiaztatuko du deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen direla, administrazio publikoek bitarteko telematikoen bidez ematen duten informazioaren arabera.

Datu pertsonalen tratamendua legitimatuta dago interes publikoaren izenean edo Getxoko Udalari berari emandako botere publikoen izenean egindako eginkizun bat betetzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

### 3. artikulua: ERABILERA-MODALITATEAK.

**3.1 Aldi baterako egoitzak:** Getxoko udalerriko gizarte-erakundeei behin-behineko bulego izateko berariaz prestatutako guneak dira. Erakundearen ohiko barne-jardueraren kudeaketa eta garapena erraztea du helburu, beharrezko oinarrizko baliabideak bere zerbitzura jarriz.

Emakida urtebetekoa izango da, eta gehienez ere 3 urtez luzatu ahal izango da.

**3.2 Aldi baterako jardueretarako espazio komunak:** erakundeen eguneroko dinamikan erabilera-aldi luzea eskatzen duten jardueretarako erabiltzen diren espazioak dira, hala nola tailerrak, prestakuntza-ikastaroak eta abar.

Emakidaren gehieneko denbora urtebetekoa da.

**3.3 Noizbehinkako jardueretarako espazioen erabilera eta erabilera esleitzea:** ez da deialdi honen xedea, eta erakundeek urte osoan eskatu ahal izango dute zerbitzu hori, eta lekuaren erabilgarritasunaren mende egongo da lagapena.

### 4. artikulua: ARETOEN EZAUGARRIAK. ORDUTEGIAK ETA KUPOAK.

Gobelaurrek sei espazio ditu, hamabi egoitza jaso ditzaketenak. Eta erabilera anitzeko bederatzi espazio.

Gela	M <sup>2</sup>	Erabilera
1	16 m <sup>2</sup>	Espazio balioanitza. Erabilera anitzak
2	15 m <sup>2</sup>	Espazio balioanitza. Erabilera anitzak
3	2 m <sup>2</sup>	Espazio balioanitza. Erabilera anitzak
4	16 m <sup>2</sup>	Espazio balioanitza. Erabilera anitzak
5	16 m <sup>2</sup>	Espazio balioanitza. Erabilera anitzak
6*	6 m <sup>2</sup>	Espazio balioanitza. Erabilera anitzak
7*	34 m <sup>2</sup>	Espazio balioanitza. Erabilera anitzak
8*	34 m <sup>2</sup>	Espazio balioanitza. Erabilera anitzak
9*	40 m <sup>2</sup>	Espazio balioanitza. Erabilera anitzak

Gela	M <sup>2</sup>	Erabilera
A	16 m <sup>2</sup>	Bi egoitza
B	16 m <sup>2</sup>	Bi egoitza
C	16 m <sup>2</sup>	Bi egoitza
D	16 m <sup>2</sup>	Bi egoitza
E	16 m <sup>2</sup>	Bi egoitza
F	16 m <sup>2</sup>	Bi egoitza

\* Horma modular mugigarriak eta hainbat konbinazio eskaintzen dituzten espazioak, ikus I. eranskina.

Ahalik eta erakunde gehienei espazioak eskaintzeko, erakunde eskatzaile bakoitzak erreserba guztien gehieneko kupo bat izango du, dagoen eskariaren arabera ezarriko dena.

**Aldi baterako** egoitzak esleitzeko lehentasuna izango dute koordinadorek, federazioek edo bestelako erakunde-elkarteek, bai eta egoitza beste erakunde batzuekin partekatzen prest daudela adierazten dutenek ere.

**Aldi baterako jardueretarako guneak** esleitzeko lehentasuna izango dute Getxoko Boluntariotza Erakundearen Elkarte (SAREKIDE) kide diren eta zentroan egoitza duten elkarteek. Beraz, nolana ere, aldi baterako jardueretarako guneen % 50 elkarte horien artean banatuko dira.

## 5. artikulua: LAGAPEN-PROZEDURA.

### 5.1. Eskaera:

Gobelaurreko boluntariotza-zentroko lokalak erabili nahi dituzten erakundeek **eskabidea aurkeztu** beharko dute, eredu normalizatuan:

- DN 19 (aldi baterako egoitzen kasuan).
- DN 330 (aldi baterako jardueren kasuan).

Eskabidearekin batera, eskabidearen atzealdean aipaturako datuak eta agiriak aurkeztu beharko dituzte erakundeek (I. eranskina):

- Erakundearen estatutuen kopia (lehenago aurkeztu ez badira).
- Dagokion erregistroko inskripzio-ziurtagiriaren kopia (lehenago aurkeztu ez badira).
- Erakunde eskatzailearen IFZren kopia (lehenago aurkeztu ez badira).
- Erakundearen ordezkaritza-organo/ek emandako adierazpena, honako hauek adierazita: Zuzendaritza Batzordearen osaera, bazkideen, boluntarioen, laguntzaileen eta profesionalen kopuru eguneratua.
- Federazioek, konfederazioek, koordinakundeek, sareek edo oinarritzko elkarteak integratzeko beste edozein modutara, ziurtagiri hori bertan integratuta dauden elkartei buruzkoa izango da, horien izenen zerrenda barne.
- Erakundeak eskabidea aurkeztu aurreko urtean egindako jardueren memoria.
- Erakundearen azken ekitaldiko memoria ekonomikoa.
- Lokalaren erabilera lagatzen den urterako jardueren proiektua.
- **Erakundearen erantzukizun zibileko (E.Z.) aseguruaren eta istripuen kopia.** (Dokumentu hau lokala esleitu eta **hilabete bat** geroago aurkeztuko da).

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 28. artikuluan ezartzen duenez, interesdunek eskubidea dute administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazio egindako dokumentuak ez aurkezteko.

Herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera, **eskaerak Administrazio Elektronikoaren Bulegoan aurkeztuko dira, [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus) helbidean.**

Eskabidearen oinarriak eta inprimakiak [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus) orrian kontsultatu ahal izango dira.

Eskaerak aurkezteko epea **2024ko maiatzaren 30ean** amaituko da.

Urteroko deialdiaz gain, espazio libreak baldin badaude, entitateek urtean zehar ere aurkeztu ahalko dituzte aldi baterako egoitza edo jardueretarako eskabideak.

### 5.2. Eskabidea zuzendu, hobetu eta egiaztatzea.

Eskabideek deialdi honetan eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte, eskabidea zuzentzeko eskatuko zaio erakundeari, eta adieraziko zaio hala egin ezean eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Getxoko Udalak beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta/edo informazio osagarri guztia eskatu ahal izango die erakunde eskatzaileei, aurkeztutako eskabidea behar bezala ulertu eta ebaluatzeko.

Halaber, eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko egokitzen jotzen diren datu guztiak eskatu ahal izango dizkie.

### 5.3. Ebazpena.

Getxoko Udalak **Alkatetzaren Dekretu** baten bidez ebatziko du nola banatzen duen lokalen erabilera erakunde eskatzaileen artean.

Dekretu horretan zehaztuko du, halaber, zein ordutegitan erabili ahalko dituzten erakundeak.

Eskaerak, gehienez ere, bi hilabeteko epean ebatzi beharko dira, dokumentazioa aurkezteko epea amaitzen den egunetik zenbatzen hasita. Ebazpenik ezean, eskabideak ezetsi egin direla ulertuko da.

Ebazpenak bide administratiboa agortuko du. Horren aurka, erakunde interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahalko dute ebazpena eman duen organoaren aurrean, eta egokitzen jotzen duten beste edozein errekurtsio ere jarri ahalko dute.

#### **5.4. Ebazpena aldatzea.**

Lokalen eta egoitzen erabilera lagatzeko kontuan hartu diren baldintzetan aldaketarik eginez gero, ebazpena aldatzea ekarri dezake, baita egindako lagapena amaitzea ere.

Bai lokalen banaketa, bai erabilera-ordutegia, kontzesio-aldian aldatu ahal izango ditu Udalak, egoki irizten dionean, herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko eta hasieran aurreikusi gabeko egoerei ekiteko (covid...). Noizbehinka ere eten ahal izango dira, noizbehinkako ekitaldiak egiteko espazio-beharrei erantzuteko.

#### **6. artikulua: Araubide juridikoa.**

Deialdi hau honako hauek arautuko dute:

- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- Getxoko Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra, 2021eko abenduaren 23ko Osoko Bilkurak onartua eta 2022ko martxoaren 18ko BAO onartua.
- 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- 2218/2024 Dekretua, lokalak erabiltzeko araubideari buruzkoa.
- Deialdi hau.